# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruñean, 2001eko azaroaren 15ean | 117 ZK.

## A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru lege proiektua, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena aldatzekoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzkoa. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.0.

I SAILA:

**Parlamentuko Jarduera:**

—2001eko urrian egindako bilerak (8. or.).

—2001eko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (12. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru lege proiektua, martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena aldatzekoa

*LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena aldatzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001eko irailaren 3ko 87. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 1, 6, 9 eta 14 zenbakiko zuzenketak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Zuzenketa horiek 2001eko urriaren 25eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## IRIZPENA
## Foru lege proiektua, martxoaren 13ko 2/1989 foru legea, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena, aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean egiten diren ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen ditu, jende guztiarentzakoak edo jendea biltzeko gaitasuna dutenak direnean, titulartasuna publikoa izan edo pribatua izan, antolatzaileek irabazteko asmoa izan edo ez izan, maiz egin edo oso noizbehinka egin. Nolanahi ere, foru lege horren eraginetik kanpo gelditzen dira eremu pribatu-pribatura mugaturiko jarduerak, familiakoak edo izaera sozialekoak, baldin eta ez badaude irekiak jende guztiarentzat. Bestetik, ixteko ordua ez errespetatzea arau-hauste arintzat jotzen du eta udalei ematen die arau-hauste arinak zehatzeko gaitasuna.

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatu beharrak honako honetan du sorburua: beharrezkoa da ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak egiten diren lokal eta establezimenduen arautegia berritzea eta, batik bat, beharrezkoa da zehapenen araubidea aldatzea, arauak aplikatzerako orduan eragingarritasuna hobetze aldera.

Gainera, toki entitateek hamaika aldiz adierazi dute aurre egin behar zaiola sortu den problematika bati, hots, sarbide murriztuko lokal eta instalazioetan josteta jarduerak antolatzean sorturiko problematikari, bereziki segurtasun baldintzei, osasungarritasunari eta hirugarrenentzako enbarazuei dagokienez. Adierazi dute, bestetik, jende guztiarentzat irekita egoten diren establezimendu publikoek ixteko ordua ez errespetatzea behin eta berriz gertatzen den kontua dela eta aurre egin behar zaiola horri.

Helburu horiek betetzeko, Foru Lege honek, jende guztiarentzat irekita ez dauden lokaletan egiten diren josteta jardueren funtzionamendu araubidea errespetatuz betiere, neurri sail bat ezarri die establezimendu mota honi, pertsonen segurtasuna ziurtatzeagatik eta hirugarrenei enbarazurik ez egiteagatik. Bestaldetik, lokal barreneko musikaren bolumenaren muga gainditzeagatiko zehapena tipifikatzen du, larritzat hartzen du establezimendu publikoetako irekitzeko eta ixteko orduak ez errespetatzea eta, azkenik, partez aldatzen du zehatzeko ahalemaren inguruko eskumenen araubidea.

**Artikulu bakarra.** Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen zenbait artikulu, ondoren

aipatzen direnak, honela geldituko dira hemendik aurrera:

Lehenbizikoa.- 1.2 artikuluaren erredakzio berria.

“2. Aplikaziotik kanpo geldituko dira jende guztiarentzat irekita ez dauden jarduerak, eremu pribatu-pribatura edo familiarrera mugatutakoak, baita Konstituzioak onartutako eskubide oinarrizkoez baliatuz egiten direnak ere. Nolanahi den, dibertsio edo jostetarako jarduera horiek egiten diren lokalek behar bezalako baldintza teknikoak bete behar dituzte hirugarrenei enbarazurik ez egiteko eta pertsonen zein ondasunen segurtasuna ziurtatzeko, batez ere hauei dagozkienak: egituren sendotasuna, instalazioen funtzionamendua, suteen kontrako prebentzio eta babes neurriak eta osasungarritasun eta higiene arauak. Horietarako, bada, udalaren baimena beharko dute lokal horiek”.

Bigarrena.- 2. artikuluaren erredakzio berria.

“Arau bidez, Foru Agindu honen menpean diren lokal eta establezimenduen eta ikuskizun publiko eta josteta jardueren katalogoa eginen da. Katalogo horretan jarduera bakoitza definitu eta bere ezaugarriak zehaztuko dira”.

Hirugarrena.- 23. artikuluko 19. eta 20. idatzzatiak gehitzea.

“19. Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren irekitzeko eta ixteko orduak ez betetzea.

20. Lokal barreneko musikaren bolumenaren muga gainditzea, ikuskizun publikoen eta josteta jardueren arautegiaren arabera gehieneko maila onargarria 10 dbA edo gehiago gainditzen denean”.

Laugarrena.- 24. artikuluaren erredakzio berria.

“Arau-hauste arintzat hartuko da foru lege honetan edo lege hau garatzeko arautegietan xedatutakoaren kontra jotzea edo xedatutakoa ez betetzea, betiere arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartua ez badago. Zehazki, arintzat hartuko da arau hauen ingurukoa ez betetzea: tramite administratiboak, lokal barreneko musikaren bolumena, edariak lokaletik kanpora ateratzea eta jarduera garatzen duten gainerako arauak”.

Bosgarrena.- 27. artikuluaren erredakzio berria.

“1. Arau-hauste arinengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea aginduzko baimen edo lizentzia emateko eskumena duen organoari dagokio.

2. Arau-hauste larriengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea udalei dagokie 50.000 biztanletik goitiko udalerrietan, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari gainerakoetan.

3. Arau-hauste oso larriengatiko zehapen espedienteak ireki, instruitu eta ebaztea Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari dagokio.

## Azken xedapenak

**Lehenbizikoa.** Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari kontra egiten dioten arau guztiak.

**Hirugarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzkoa

*HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2000ko maiatzaren 23ko 42. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 1, 2, 3 eta 4 zenbakiko zuzenketak, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 1, 2 eta 3 artikuluei, xedapen iragankorrei, azken xedapenari, zioen azalpenari, tituluari eta izenburuei Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako boto partikularrak.

Zuzenketa horiek 2001eko urriaren 18ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## IRIZPENA

**TITULUA** (KENDUTA)

ZIOEN AZALPENA (KENDUTA)

Testu artikuluduna

**1. artikulua.-** (KENDUTA)

**2. artikulua.-** (KENDUTA)

**3. artikulua.-** (KENDUTA)

**Lehen xedapen iragankorra** (KENDUTA)

**Bigarren xedapen iragankorra** (KENDUTA)

**Azken xedapena** (KENDUTA)

# Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena

*LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2000ko maiatzaren 23ko 42. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere..

Iruñean, 2001eko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## IRIZPENA
## Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Kontseilua, martxoaren 17ko 8/1999 Foru Legearen bitartez eratua, ekarpen garrantzitsua izan da Foru Komunitateko erakunde-egiturarako; izan ere, bertako erakundeen eskueran goi-mailako kontsulta-organo bat ezarri du. Kontsulta-organo horrek, Gobernuaren Administrazioarentzat ez ezik, Erkidegoko erakundeentzat ere lan egiten du. Hala diote Nafarroako Parlamentuak, Gobernuak eta beste erakunde batzuek eskaturiko irizpen ugariek.

Aipaturiko erakundeak urtebetez funtzionatu ondoren, agerian geratu da beharrezkoa dela foru legeko zenbait artikulutan aldaketa batzuk egitea, Kontseiluak berak 2000ko oroit-idazkian adierazi duen bezalaxe, aldaketa horiek egin beharraren arrazoiak azalduz. Horrela, Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean gauzaturiko alferrikako organo-bikoizketa hori kendu egiten da, eta, horren ondorioz, beharrezko gertatzen da horren arabera gai-banaketa egokitzea eta aipaturiko batzordeari buruz egiten ziren aipamen guztiak eta hari egiten zitzaizkion gai-esleipen guztiak kentzea. Hitzarmen eta lankidetza akordioei buruzko aholkua emateko araubidea zehaztu egiten da, Nafarroako Parlamentuak haiek baimendu behar ditueneko kasuetara murriztuz. Gobernuak bere kabuz edo beste entitate, korporazio edo erakunde batek eskaturik eginiko aukerako kontsultek beharrezko izanen dute hark aurretiaz hala erabakitzea. Halaber, txostenak emateko epeen araubidea egun baliodunetan izateari egokitu zaio, eta Kontseiluak hartu du hori murrizteari buruzko erabakia, larrialdi-kasuetan.

Era berean, Parlamentuko bizitzak erakutsi du beharrezkoa dela Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Biltzarreko organo politikoa baita, irizpenak eskatu ahal izatea, Mahaiaz gain. Mahaiak, organo administratibo eta barne-kudeaketakoa baita, horretarako ahalmena dauka; Eledunen Batzarrak, ordea, bere proposamenak Mahaiak onar ditzala behar du, nahiz eta, Erregelamenduak esleituriko eskumenak ezberdinak izateagatik, hari dagokion gairik garrantzitsuenak aztertu eta ebaztea, are Mahaiaren erabakien aurka aurkezturiko errekurtsoak ere.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzea beharrezkoa da, modurik onenean antolatua egon, funtzionatu eta duen eginkizun institutuzional garrantzitsua betetzeko.

**1. artikulua.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 6. artikuluak honako testu hau izanen du:

"6. artikulua.

1. Nafarroako Kontseiluak Osoko Bilkuran jardunen du. Osoko Bilkura kontseilukide guztiek osatua izanen da.

2. Nafarroako Kontseiluaren eraketa –bilkurak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzearen ondorioetarako– baliozkoa izan dadin, aintzat hartu beharko da administrazio prozeduraren gaineko arauetan organo kolegiatuetarako oro har ezarritakoa".

**2. artikulua.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 16. artikuluak honako testu hau izanen du:

"1. Nahitaez, honako afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko.

b) Foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak, baldin eta Nafarroa-

ko Kontseiluaren antolamendua, eskumena eta funtzionamendua ukitzen badute.

c) Legegintzako foru dekretuen proiektuak.

d) Konstituziokontrakotasun errekurtsoak eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazkak.

e) Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin sinaturiko hitzarmen eta lankidetza akordioak, horiek sinatzeko Nafarroako Parlamentuaren aurretiazko baimena behar denean, eta horiei buruzko zalantzak edo desadostasunak.

f) (KENDUTA)

g) (KENDUTA)

h) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere.

i) Foru Komunitateko Administrazioaren eskubide ekonomikoei buruzko transakzioak, judiziozkoak nahiz judizioz kanpokoak, eta aipaturiko eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, betiere auzigaiaren zenbatekoa berrogeita hamar milioi pezeta baino gehiagokoa bada, aipaturiko bi kasuetan. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen eskubide horiek ukitzen dituzten itun edo hitzarmenetan, prozesu konkurtsaleen ondorioz sortuak direnean; hain zuzen ere, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 15. artikuluaren 2. idatz-zatiko bigarren lerrokadan aipatzen diren horietan.

j) Berrikuspen-errekurtso administratiboak.

k) Foru Komunitateko Administrazioak izapidaturiko espedienteak, baldin eta legeak nahitaez eskatzen badu organismo aholku-emaile baten irizpena; betiere, aipaturiko espedienteak honako gai hauei buruzkoak badira, besteak beste:

– Kalte-galerak ordaintzeko erreklamazioak, hogei milioi pezetatik gorakoak badira.

– Administrazioak bere kabuz berraztertzea administrazio-egintzak.

– Hirigintza-planeamenduko tresnak aldatzea, baldin eta aldaketaren xedea berdeguneen edo espazio libreen bestelako zonifikazioa edo erabilera bada.

– Udal dermioak aldatzeko espedienteak.

– Hitzarmen eta kontratu administratiboen interpretazioa, deuseztasuna eta amaiaraztea, kontratistak aurkako jarrera agertzen duenean.

– Kontzesio eta kontratuen aldaketak, baldin eta horien zenbatekoa, dela bakarka dela guztiak hartuta, kontratuaren esleipen prezioaren 100eko 20 baino handiagoa bada eta kontratuaren esleipen prezioa 1.000.000.000 pezetakoa edo handiagoa bada.

l) Legearen arabera, Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko irizpena behar duen beste edozein gai.

2. Hala nahi izanez gero, honako afera hauetan eskatu ahalko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Foru legeen aurreproiektuak, Nafarroako Gobernuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean.

b) Foru legeen proiektu eta proposamenak, Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bidez hala eskatzen duenean, Eledunen Batzarraren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez.

**3. artikulua.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 18. artikuluak honako testu hau izanen du:

“18. artikulua. Beste irizpen batzuk.

Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkioten gai guztietan, bere ekimenez edo zuzenbide publikoaren menpeko Nafarroako entitate edo organismoek eskatuta, Nafarroako Gobernuak, hala erabakita, bere Lehendakariaren bitartez, edo Nafarroako Parlamentuak bere Lehendakariaren bitartez hala eskatzen diotenean, Eledunen Batzarraren, Biltzarreko Mahaiaren, Parlamentuko bi talderen edo foru parlamentarien bosten baten ekimenez”.

**ARTIKULU BERRIA.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 21. artikuluko 2. idatz-zatiak honako testu hau izanen du:

“2. Erabakiak hartzeko bertan dauden kontseilukide gehienen botoak beharko dira.

Berdinketarik gertatuz gero, Lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da.”

**4. artikulua.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 22. artikuluak honako testu hau izanen du:

"Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu, eskuarki, eskatzen zaizkion irizpenak.

Organo eskatzaileak espedientea presakoa dela justifikatzen duen kasuetan, Kontseiluak epea hamabost egun baliodunera arte jaitsi ahalko du.

Salbuespen gisa, Kontseiluak, ebazpen arrazoitu bidez, epe orokorra luzatu ahalko du, gehienez ere hamabost egun baliodun gehiago. Aipaturiko ebazpen hori txostena eskatu duenari jakinaraziko zaio.

Nafarroako Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da".

**5. artikulua.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 27. artikuluak honako testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa den araubide juridiko bera ezarriko zaio Nafarroako Kontseiluari, kontratazioari, erantzukizunari eta administrazio- edo barne-araubidekoak diren gainontzeko arloei dagokienez.

2. Nafarroako Kontseiluari dagokio bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena onestea. Nafarroako Gobernuari dagokio erregelamendu hori onestea, foru lege honetako printzipioekin bat etorriz".

**ARTIKULU BERRIA.** Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legearen 28. artikuluari idatz-zati bat gehituko zaio. Hauxe da testua:

“3. Nafarroako Kontseilua, antolamendu eta funtzionamendu independentzia badu ere, Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia eta aurrekontu kudeaketari buruzko arau orokorren menpe egonen da.

Era berean, ekonomiaren eta aurrekontuen mailako jarduketak Nafarroako Ogasunaren Kontu-hartzailetzaren menpe egonen dira.”

### Xedapen gehigarri berria

“Foru Lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, Kontseiluak Nafarroako Gobernuari igorriko dio haren antolamendu eta jardunari buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, Foru Lege honetan xedatzen denera egokitzeko”.

### Xedapen indargabetzailea

Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legeko 17. artikulua eta laugarren xedapen gehigarria, eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak indargabetu egiten dira.

### Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

**I saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 2001eko urrian egindako bilerak

**MAHAIA**

18 eta 29an.

**MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA**

1, 8, 15, 22, 29 eta 30ean.

**OSOKO BILKURA**

4 eta 5ean:

– Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak egindako komunikazioa eztabaidatzea.

10ean:

– Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari buruz Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzeari buruzko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitatearen funtsen kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duen irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzeko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarrizko legedia bete dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kultur eta erlijio aniztasuna konsziente eta kritikoki onartzearen aldekoa dela.

– Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kokaleku egokiagoren bat bila dezan egitekoa den espetxearentzako.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun arloko lanpostuei buruzko foru dekretu berrian euskararen balioespena arautzen duten artikuluak indarrik gabe utz ditzan.

– Jabeldura, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak udal autonomia errespetatuko duen jakiteko.

– Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, 2000 urtean zehar, aldi baterako eginiko kontratuei buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak egin du.

25 eta 26an:

– Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak. José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak eta Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu dituzte osoko zuzenketak.

– Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz Toki Administrazioko Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroan LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitatean LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Nafarroako Foru Komunitatean irrati-komunikazioko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, egoki iritziz gero, aintzat hartzea. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua Gazteentzako sexu-hezkuntza eta -laguntzari buruzko eskualdeko plana egin dezan premiatzen da.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua “Mikel Larumbe” osasun ikerketarako beka ematea berriz azter dezan premiatzen da.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua Ikastetxeetako bizikidetasun demokratikorako eta bakerako hezkuntzako plana egin dezan premiatzen da.

– Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua Udako Euskal Unibertsitatearekin izandako lankidetza hitzarmena berriz izenpetu dezan premiatzen da.

– Jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, etorkinentzako hezkuntza politikari buruzkoa.

– Galdera, A-15 autobidearen erabiltzaileen txartelak ez berritzeari buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak egin du.

**OSASUN BATZORDEA**

2an:

– Lan bilera. Bideko Ama Birjina Ospitalean izandako legionella agerraldia azaltzera honako talde eta sindikatu hauek etorriko dira: Langileen segurtasun eta osasun batzordea, Medikuen sindikatua, Erizainen Sindikatua, CCOO, UGT, AFAPNA, ELA-STV, LAB eta Erizaintzako laguntzaileen sindikatua.

3an:

– Lan bilera. Bideko Ama Birjina Ospitalean izandako legionella agerraldia azaltzera honako talde eta sindikatu hauek etorriko dira: Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendaria, Escolar Castellón jauna; Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, Calleja Gómez jauna; Aragoiko Osasun Zerbitzuko Arloko kudeatzaileordea, Falo Forníes jauna; Osasun Publikoa Ikuskatzeko eta Elikagaien Higienerako atalburua, Barricarte Gurrea jauna; Osasun Publikoaren Laborategiko atalburua, Fraile Jiménez jauna; Osasun Publikoaren Institutuko Eritasun Infekziosoen eta Agerraldien Kontrolaren atalburua, Barricarte Gurrea jauna; Bideko Ama Birjina Ospitaleko Mantentze-lanetako burua, Arriaga Miguéliz jauna; Bideko Ama Birjina Ospitaleko Aurreneurrien Medikuntza eta Kalitatearen Kudeaketarako Zerbitzuko burua, De Pedro andrea; Martínez Asiáin jauna, zendutako baten ahaidea.

17an:

– Lan bilera. Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendari mediko asistentzial Rodríguez Garrido jaunak azalpenak emanen ditu zentro horretan izaniko legionella agerraldia dela-eta eginiko jarduketei buruz.

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

2 eta 3an:

– Lehendakariordea hautatzea.

– Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Gobernua Zaraitzun basurdeak kontrolatzeko neurri eraginkorrak har ditzan premiatzen duen mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea.

3an:

– Lan bilera. 2001-2004 eperako Etxebizitza Planari buruz hitz eginen dute honakoek: Cederna-Garalur; José Ignacio Arribas Echeveste jauna, arkitektoa; Héctor Nagore Soravilla jauna, abokatua.

23an:

– Lan bilera. 2001-2004 eperako Etxebizitza Planari buruz hitz eginen dute honako udal hauek: Iruñeko Udala, Zizur Nagusiko Udala, Aranguren-go Udala, Uharteko Udala, Tafallako Udala.

– Lan bilera. 2001-2004 eperako Etxebizitza Planari buruz hitz eginen dute honako udal hauek: Erriberriko Udala, Caparrosoko Udala, Tuterako Udala.

30ean:

– Lan bilera. 2001-2004 eperako Etxebizitza Planari buruz hitz eginen dute honako udal hauek: Azagrako Udala, Azkoiengo Udala, Vianako Udala.

– Lan bilera. 2001-2004 eperako Etxebizitza Planari buruz hitz eginen dute honako udal hauek: Baztango Udala, Agoizko Udala, Izabako Udala.

## HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

9an:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, azaltzeko ea zergatik eskatu zion poliziari gelategian sartzeko iragan ekainaren 6an.

18an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, azaltzeko iragan ekainaren 7ko goizaldean gertaturikoa. Bertan 77 lagun atxilotuak izan ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoan

– Ondoko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea: horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa bultzatzeko plan bat egin dezan.

23an:

– Lan bilera. Unibertsitate ikasketak Erriberan jartzearen aldeko Fundazioko ordezkariak agertuko dira, haien helburuak azaltzera.

30ean:

– Iruñeko alkatearen agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, Vianako Printzea Erakundeak Gazteluko Plazako lurrazpiko aparkalekuaren proiektuaz egin duen balorazioa betetzeko Udalak pentsatu dituen neurriei buruzko informazioa eman dezan.

31n:

– Lan bilera. “Haritz Berri” etxalde-eskolako ordezkariek lantegi eskoletarako plan bat prestatzeko premiari buruz hitz eginen dute.

– Lan bilera. Burlatako Ermitaberri ikastetxeko gurasoen elkarteak, bere hezkuntza premiei buruz hitz eginen du.

## TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

9 eta 15ean:

– Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

## BEHI-AZIENDAREN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO BATZORDE BEREZIA

9an:

– Lan bilera. Jarraipena.

18an:

– Lan bilera Ortuellako García Mendoza enpresako ordezkari batekin.

– Lan bilera Iruñerriko Mankomunitateko Lehendakariarekin.

23an:

– Txostena onestea.

– Lan bilera Tratamientos MER, SL enpresarekin.

## NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA MENDI BATZORDEA

16an:

– Idazkaria hautatzea.

– Ponentzia bat eratzeko proposamena, herri ondasunen gaineko egungo legeria berrikusteari buruzko txosten bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Pitillasko Udalaren agerraldia, erraustelabea ezartzeari buruz informazioa eman dezan. Eledunen Batzarrak eskatuta.

18an:

– Lan bilera. Foru erkidegoan errausketa labe bat jartzeko lehiaketara aurkeztu ziren enpresak agertuko dira: ISN, Tratamientos Mer, SL.

24an:

– Abeltzaintzako Kudeaketako Institutuko Teknikoko gerente Santamaría Echarte jauna, agertuko da, bere jarduketa plana azaltzera.

24an:

– Industria eta Tecnologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Pitillasen errauste-labea ezartzeari buruz informazioa eman dezaten.

## EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

16an:

– Lehendakaria hautatzea.

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, nazioarteko ekonomiaren moteltzeak Nafarroan izanen dituen ondorioak eta joan den abuztuan KPIak zergatik egin duen gora azal ditzan.

– Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Corellako Arrese Fundazioari emandako laguntzen kudeaketari buruz informa dezan.

17an:

– Saltoki handien gaineko zerga bat sortzeari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzea.

– Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bidezain eta suhiltzaileen etxeak deiturikoak okupatzeko plan bat egin dezan.

## GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

16an:

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia Familiari laguntzeko 2001-2004 eperako Plana aurkezteko

31n:

– Lan bilera. “Pobreziaren aurkako Nafarroako Sarea” elkartearen ordezkariek bere iritzia azalduko dute Nafarroako Gobernuak gai honetan egindakoaz.

## EUROPAKO GAIETAKO BATZORDEA

24an:

– Lehendakariordea hautatzea.

– Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, Bordeleko bileran Iruña-Frantzia autobia eraikitzearen alde eginikoaz informazioa eman dezan.

## FORU ARAUBIDE BATZORDEA

31n:

– Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Corellako Arrese Fundazioari emandako laguntzen kudeaketari buruz informa dezan, Eledunen Batzarrak eskaturik.

– Nafarroako Gobernuko Lehendakariak Bideko Ama Birjina ospitalean legionellosiaren agerpenaz informaziorik ez emateko erabakia azal dezan, Eledunen Batzarrak eskaturik.

# 2001eko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

**1ean:**

– Idazkia, Mélidako Udalarena. Horren bidez, ezetza eman dio MER hondakinak deusezteko errauste-labea jartzeari buruz aritzeko agerraldirako gonbitari.

– Idazkia, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andrearena. Horren bidez informazioa eskatu du Nafarroako Helduen Tutoretzarako Fundazioari buruz.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, opiazeoen inguruko zenbait konturi buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, aurrekontuko zenbait kontusailen betetzemailari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, telefonia mugikorreko estazioek osasunean izan ditzaketen eraginei aurrea hartzeko esku-orri bat argitaratu izanari buruz foru parlamentari Óscar Alonso Toledo jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Ebazpena, Kontuen Ganbarako lehendakariarena. Horren bidez ganbera horretako 2002ko ekitaldiko aurrekontuaren proiektua onetsi du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez Bertaratzeko unibertsitatea Erriberan jartzearen aldeko fundazioaren agerraldia eskatu du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez informazioa eskatu du golf zelaien instalazioen inguruan.

– Galdera, proiektatutako golf zelaiei buruzkoa. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez, Pitillasko errauste-labearen kontrako taldeak agerraldia egiteko eskaera erretiratzea eskatu du.

**2an:**

– Foru Lege proposamena, lurzatien edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa edo trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeari begira eskualdeak mugatzen dituena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Espainiako Parlamentuetako Legelarien Elkartearena. Horren bidez laguntza eskatzen da “El futuro del Estado Autonómico” izeneko liburua argitaratzeko.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, hazkuntza estentsiboaren bidez haragitarako behi-azienda sustatzen duten lehentasunezko abeltzaintza ustiategientzat onetsitako laguntza berezi eta bakarrari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, foru parlamentari Elena Torres Miranda andrearena. Horren bidez, Osasun Batzordeko lehendakari den aldetik jakinarazi du Rosa Mareca andreak ordeztuko duela Francisco Javier Falo Forniés jauna Osasun Batzordeak urriaren 3an egin beharreko lan bileran.

– Zuzenketak, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak.

**3an:**

– Idazkia, Instrukzioko 3. Epaitegiarena. Horren bidez eskatu du Osasun kontseilari Cervera jaunak, 2001eko irailaren 6an, legionella agerpenaren inguruko egoerari buruz eginiko agerraldiaren transkripzioa.

– Erabakia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez adierazi du ez dagoela ados Tuteran unibertsitate ikasketak ezartzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzearekin.

– Idazkia, AFAPNArena, Eskubide Pasiboei buruzko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeari buruzkoa.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko zuzendari mediko Juan Manuel Rodríguez jaunarekin, legionella agerpena gertatu zenean izan zuen jokabidea azal dezan.

– Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000koa, Kontuen Ganbarak egina.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Bideko Ama Birjinaren Ospitaleko zuzendari mediko Juan Manuel Rodríguez jaunarekin, legionella agerpena gertatu zenean izan zuen jokabidea azal dezan.

– Idazkia, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bidez eskatu du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia, mahats eta ardoaren sektoreari laguntzeko aurreikusi diren neurriei buruz informa dezan.

– Idazkia, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea nekazaritzako zenbait erakunderekin, mahats eta ardo sektorearen egoerari buruz duten iritzia ezagutzeko.

– Idazkia, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena eta José Miguel Nuin Moreno jaunena. Horren bidez 4/94 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkeztutako zuzenketei eutsi diete.

– Osoko zuzenketa, foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nekazaritzako azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

– Galdera, Feoga-bermea dela-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa. Foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, kohesio funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa. Foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, egiturazko funtsak direla-eta Europar Batasunak eginiko ekonomia aurreikuspenei buruzkoa. Foru parlamentari José Mª Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Osoko zuzenketa, Batasuna Parlamentuko Taldeak Nekazaritzako azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztua.

**4an:**

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeko kideek bisita egin dezaten Castejóngo zentral termikoetara.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez eskatu du lan bilera egitea Bertaratzeko unibertsitatea Erriberan jartzearen aldeko fundazioko kideekin, bertararatzeko ikasketak Tuteran ezartzeari buruzko informazioa eman dezaten.

– Idazkia, Nafarroako Arartekoarena. Horrekin batera 2001eko aurrekontuen aurreproiektua igorri du.

– Idazkia, Felipe Karrera Maiza jaunarena. Horren bidez salatu du Valdemoroko espetxean preso duen semearen eskubideak urratu egiten direla.

– Idazkia, Castejóngo Udalarena. Horrekin batera, Nafarroako Gobernua premiatzeko erabakia, Foru Komunitatean inmigrazioaren arloko politika koordinatzeko kontseilua sor dezan.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, Altsasuko Galdan enpresak botatzen dituen ke toxikoei buruz Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Galdera, “Atento Comunicaciones” enpresak zergen inguruko telefono deiak hartzeko bete duen zerbitzuari buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Berriozarren lurrazpiko pasabidea eraikitzeko lanek eragindako trafiko arazoei buruzkoa. Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Boto partikularra, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak ekainaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeko Foru Legeaz onetsitako irizpenari buruzkoa.

**5ean:**

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bidez Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren agerraldia eskatu du, artoaren superprodukzioa erregionalizatu ez izanak eragindako egoerari eta Europar Batasunak nekazariei laguntzak emateko aukerari buruzko azalpenak eman ditzan.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemako ospitaleetan, 1999, 2000 eta 2001 urteetan, gaixoen arteko heriotza tasa, ospital barreneko infekzioengatik, zenbatekoa izan den jakiteko Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Erregioen Batzordeak Bruselan, irailaren 19 eta 20an eginiko 40. osoko bilkurari buruzko informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, adimen gaixotasunak dituztenei laguntzeko aurrekontuko zenbait programa betetzeari buruz foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Nafarroako komunikabideen ikusle-entzule kopuruari buruz 1996tik gaurdaino eginiko azterketen gainean Batasuna Parlamentuko Taldeak eskaturiko informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez jakinarazi du Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eratzeko jarduketei ekin beharra dagoela.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Bideko Ama Birjina Ospitalean izandako legionella agerpenari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eskaturiko dokumentazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Pitillasen animalia hilak eta MER produktuak errausteko labe bat jartzeko proiektuari buruz Batasuna Parlamentuko Taldeak eskaturiko informazioa.

**9an:**

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, aurrekontuko zenbait kontusailen betetzemailari buruz foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Nafarroako lurralde estrategia egin eta zabaltzeko laguntza teknikoaren kontratuaren espedienteari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskaturiko informazioa.

– Foru Lege proiektua, Nafarroako Nekazaritza ustiategien Erregistroari buruzko 20/97 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Gobernuak igorri du.

